

263. zk.

Bigarren aroa

Urriak 15
2015

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

Kirolak

Txingudi Rugby Taldea izango da Irun Rugby Taldea elkartearen izen berria.

9. orrialdea



Erreportajea

Urdanibia plazan egiten den azoka txikia.

10. orrialdean



Zer egiten dute gazteek uda pasa ondoren?

- 3 Elkarrizketa Jose Ignacio Iruretagoyena Bidasoa Institutuko zuzendari ohia.
- 4 Inkesta Zer iruditzen CBA liburutegi berria?
- 5 Erreportajea CBA kultur gunea.
- 6 Erreportajea Kontenporanea.
- 7 Erreportajea AECC eta bularreko minbiziaren aurkako eguna.
- 8 Elkarrizketa Julio Iturre Irungo Mendizaleak elkarteko presidentea.
- 11 Haurren Leihoa Irungo La Salle HH
- 12 Gazteen Lanak Txingudi Ikastola BHI.
- 14 Gazte infor



Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



CASER ANAKA



GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169



CASER BETHARRAM

Argazki lehiaketa



Mikel Solano

Mendibil parkeko zuhaitz berde-berdeak, uda iritsi baino lehen.

Argazki lehiaketan edonor izan daiteke parte hartzaile. Ez dago adinari edo bizitokiari dagokion mugarik.

Gaia bakarra izango da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: urtearen bukaeran, argitaratu ditugun argazkien egileen artean sari bat zozkatuko dugu.

Bete beharrekoak: argazkiak kalitate ona behar du izan. Argazkiarekin batera, deskribapen txiki bat bidali beharko du egileak.

Argazkiak bidaltzeko: jarozena@irunero.com

Irun atzo Irun gaur

Larretxipi Kalea

IUA: 25798



Larretxipi kalea 1970eko hamarkadan.

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena eta Unai Oiartzun

Euskara zuzentzailea: Unai Oiartzun

Publizitatea:

Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas

amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa

ion@943sansebastian.com

Argitaratzailea:

Baseclick S.L.

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua:

SS-230-94.

Maiatzaren Lehena, 23 - 20304 IRUN

Tel: 673 39 84 57

Irungo alde zaharreko kaleen artean, aspaldikoenetako bat da. Esanahi literala agerikoa da: "Larre" eta "txipi" edo "txiki". Ziur aski, kalea larrearen batean amaituko zen aspaldi. Larre txiki bat izango zen, handik gertu dagoen Larreaundikoaren kontrako. "El Bidasoa" aldizkarian 1949ko irailaren 17an argitaratutako artikuluan, Luis de Urantz historialariak idatzi zuen "elorri txikia" esan nahi zuela. "Diccionario del Bidasoa"n gaineratu zuen antzina Irungo bide nagusienetako bat zen Errege Bidea bertatik igarotzen zela, Behobia aldera jarraitu aurretik. Segidan idatzi zuen Larretxipin egon zela Elgorriaga txokolate fabrika zaharra. Beste merkataria askoren egoitzak ere egon ziren Larretxipin: Teodoro Pikabearen anisete fabrika ospetsua, eta argizariaren deribatuak lantzen zituen artisaubatena ere bai, Irun osoa hornitzen zuena, argitarako indar elektrikoa sortu baino lehen. Larretxipi kaleko 10. zenbakiaren atzealdean

jarri zuten, gainera, Irungo lehen gimnasioa, estatuan mailan aitzindaria. Kale hau da, Irunen, XIX. mendeko euskal jatorrizko eraikuntzak hoberean mantentzen dituen: harrizko, zurezko, adreiluzko egitura duten etxeak eta zurezko balkoiak, horietako batzuk kristalez estalitakoak, ez oso handiak. Bi pisu eta sotoa zituzten hasieran, eta mende honen hasieran solairu bat gehiago erantsiz handitu zituzten, egitura primitiboa gordeta, dena den. Larretxipi kalea 1847an zolatu zuten.

1886an iritsi zen ur korrantea etxeetara, eta hurrengo urteetan, mendea amaitu baino lehen, indar elektrikoa ere bai.

Iturria: José Monje.
Irungo kaleen izenak.



Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Yaraburuetza de Política Lingüística

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du



JOSÉ IGNACIO IRURETAGOYENA:

“Jendearen maitasuna eta estimua sentitu ditut. Ez nuen horrelako ekitaldirik espero”

Goizeko zortzietan jarri digu hitzordua José Ignacio Iruretagoyena *Irurek*, elkarrizketa egiteko. Erretiroa hartu du, bai, baina beti bezain aktibo dabil. Bidasoa Institutuan egin duen ibilbidea gogoratu dugu. Orrialde bakarra ez da aski *Irurek* konta dezakeen guztia idazteko. Urrian omenaldia egin zioten Bidasoa Institutuan, eta amaieran, hiriko Urrezko Domina emango diotela jakinarazi zuen José Antonio Santano Irungo alkateak.

Hasteko, zorionak.

Ezustekoa izan zen, egia esan. Oso ekitaldi polita, hunkigarria eta alai. Nire betebeharrak zela pentsatuta lan egin izan dut beti. Ez nuen inoiz halakorik espero izan. Omenaldiaren amaieran, alkateak esan zidan udal talde guztiek erabaki zutela niri hiriko urrezko domina ematea.

Hasi zinenean, imajinatzen al zenuen halakorik?

Ez, inola ere ez. 58 urte daramatzat eskola honetan. 12rekin hasi nintzen, ikasle nintzenean. Ondoren, hiru urteko industria ikasketak egin nituen. 16 urterekin Palmeran lan egiten hasi nintzen, txandaka, batzuetan goizez, bestetan arratsalde. Aldi berean, irakasle izateko ikasten ari nintzen. 18 bete nituenean hasi nintzen eskolak ematen, duela 52 urte. Pentsa zenbat ikasle izan ditudan, asko ni baino helduagoak. Nire ikasle izandako baten baten bilobei ere eman izan dizkiet kla-

seak. Gero ingeniari ikasi nuen, eta azkenik, proiektu mekanikoen garapeneko katedra atera nuen.

Noiz iritsi zen zuzendari izateko momentua?

1974an, 28 urte nituela. 1.200 ikasleri baino gehiagori klaseak eman ondoren.

Nola gogoratzen dituzu urte haiek?

Oso harro nago. Jende umila etortzen zen institutura. Batzuek ez zituzten beste zentroetan onartzen, problematikoak zirela eta. Jende horrek enpresak sortu ditu ondoren, edo ikasten jarraitu du. Garapen handia izan du Bidasoa Institutuak, orokorrean. Gaur egun, zentro integratua izan dadin lortu dugu. Horrek esan nahi du hasierako ikaskuntza, eta enpresaren munduari begirakoa asko zabaldu behar ditugula. 2002an Euskadiko zilarrezko Q saria jaso genuen, eta estatuko lehen zentroa izan ginen kalitateko sari nazionala ja-

sotzen. Ildo horri eutsi behar diogu. Orain, berrikuntzaren eta ohitura sortzaileen alde apustu egiten ari gara.

Iraganari buruz galdetuta, etorkizunaren inguruan hitz egiten amaitzen duzu.

Hala da. Ulertzen dut elkarrizketa batean gogoratu beharra dagoela, baina aurrera egiteko, etorkizunera begiratzea gustatzen zait niri. Gehien sustatzen ari garen arloetako bat ekintzailatza da, “Urrats bat” programaren bidez. Orain arte, institutuko ikasleek 24 enpresa sortu dituzte, eta horietatik, 20 martxan daude oraindik.

Urkullu lehendakariak Lanbide Heziketako lehen sari berezia eman zizun.

Oso hunkigarria izan zen niretzat. Gauza bat ikasi nuen, hori bai. Konturatu nintzen hizkuntzarik ez dakidala. Leku askotako jendea etortzen zitzaidan zoriontzera, baina ez nintzen haiekin hitz egiteko gai.

Zer iruditu zitzaizun urriaren hasieran institutuan egin zizuten omenaldia?

Jendearen maitasuna eta estimua sentitu ditut. Ez nuen halako ekitaldirik espero. Jendea asko inplikatu da.

Institutura etortzen zara egunero. Zertan ari zara orain lanean?

Ez naiz aspertzen. Urte amaierako hezkuntza ikuskatzeko memoria egiten ari naiz, alde batetik. Bestetik, gurasoen Batzar Orokorra prestatzen. Pixkanaka ardurak utziz joango naiz. Beste modu batera ikusi beharko ditut orain gauzak.

Zer pentsatu duzu etorkizunerako?

Nire euskara maila hobetu nahi nuke. Gitarra bat ere erosi dut, eta jotzen ikasi nahi dut, abesten ditudan kantuei laguntzeko. Omenaldian Agur Jaunak abestu zidaten, eta zuzentzen aritu nintzen. Institutuari dagokionez, ez nuke erabat alden du nahi. Eusko Jaurlaritzako kontseilariordeak esan zidan Lanbide Heziketa aktiboaren atea zabalik dudala, irakasle berriei aholkuak emateko.

Zein presentzia izan du euskarak Bidasoa Institutuan?

Euskararen erabilera ahal bezain beste normalizatzen ahalegindu gara. Baina egia da ikastolatik datorren jende asko gaztelaniara pasatzen dela. Administrazioetik ikasleen gutxiengoak markatzen dizkigute klaseak antolatzeke. Askotan, eredu mistoak egin behar izan ditugu, euskarazkoan jendea falta zelako.

Kontatuko al duzu pasadizo edo bitxikeriaren bat?

Gogoratzen dut irakasleek ikasle bat kanporatu nahi izan zutela, egin zuen bihurrikeriaren baten ondorioz. Nire esku hartzeari esker, ez genuen zentrotik kanporatu, eta ikasturtearen amaieran, klaseko ikasle onena izan zen. Duela gutxi topatu nuen, eta oraindik ere asko eskeretzen zidala esan zidan, gurasoekin eta irakasleekin bilera antolatu nuelako, egoera bideratzeko. Horrelako pasadizo asko izan dira. Ez zait sekula korporatibismoa gustatu. Ikasleak, irakasleak eta zuzendaria maila berean gaude, nire ustez.

INKESTA

Zer iruditzen CBA liburutegi berria?

Maria González

Asko gustatu zait. Nahiko handia da, eta gauza asko daude: ordenagailuak, haurrentzako eta helduentzako lekua...

Espero nuen liburutegi zaharren antzekoa izatea, eta sorpresa izan da niretzat. Beste liburutegia oso txikia zen. CBA gehiago gustatu zait.



Jose txo Ormazabal

Oso liburutegi modernoa da. Zabala da, baina dena gertu dago. Umeentzako lekua oso polita eta aproposa iruditu zait. Gainera, ikusi dut ipuin kontalariak jarriko dituztela.

Uste dut etxean bezala sentitzeko aukera ematen duela. Leku lasaia da, eta aldi berean, zer edo zer behar izanez gero, eskura dago dena.



Joana Akiza

Gustatu zait, batez ere, eserlekuak jarri dituztelako apalen ondoan. Hala ere, orain zailagoa da liburuak aurkitzea, lehen errazago aurkitzen ziren. Nire iritziz, hori hobetu daiteke.

Eraikinari dagokionez, espero nuen bezalakoa da, gutxi gorabehera. Kanpotik ikusita nahiko zabala dirudi.



Maribi Franco

Gaur lehen aldiz etorri naiz eta, egia esan, gustatu zait. Zabala eta argitsua da. Dena den, espero nuen liburu gehiago egotea, baina ulertzen dut jarri berria dela, eta pixkanaka beteko dituztela apalak.

CBA liburutegia Ikustek Alaia baina gehiago gustatzen zait, uste dut zabalagoa dela.



zure enpresari
internetetik zabalitzen
laguntzen diogu

- marketing online
- bideo online
- web orriak
- sare sozialak
- formakuntza



Ateak ireki ditu Carlos Blanco Aguinagak

Kultur gune handia zabaldu du Irungo Udalak hiriaren erdian



Amaitu da San Juan plazako zuloaren misterio luzea. Hilabeteak zera-matzaten beharginek lanean. Baina gauza handirik begiztatzeko aukerarik ez zuen ematen obaloko balkoiak. Orain, berriz, lanaren emaitza aurrez-aurre ikus daiteke. Urriaren 5ean jarri dute martxan Carlos Blanco Aguinaga (CBA) kultur gunea. Lehenago, ate irekietako jardunaldiak eta inaugurazio ofiziala egin dituzte. Ia 2,4 milioi euroko aurrekontua izan dute eraikitze lanek, eta hamalau hilabete eta erdiko epean egin dituzte.

Irungo eskoletako 275 haur izan ziren lehenak kultur gune berria bisitatzen. Ostiralgoizean ezagutu zuten Belaskoenea, Leka Enea, El Pilar, San Vicente de Paul, Txingudi Ikastola, Eguzkitza eta Elatzeta eskoletako ikasleek. Arratsaldean, beste ehunka irundar hurbildu ziren CBAra, ate irekietako jardunaldian. Larunbat eguerdian egin zuten inaugurazio ofiziala Udaleko ordezkariak. Gonbidatu bereziak ere izan ziren: kultur guneari izena eman dion Carlos Blanco Aguinagaren senideak. Idazle, iker-tzaile eta irakasle izan zen Blanco Aguinaga. Irunen jaio zen, 1926an, eta Santiago kalearen inguruan eman zuen haurtzarora. Gerra zibilaren ondorioz ihes egin behar izan zuen gurasoekin, beste irundar askok bezala, 1936an. Erbestean, Mexikon garatu zuen bere ibilbide profesionala. Ameriketako Estatu Batuetan hil zen, 2013an. "Zirkulua itxi da. Irunera bueltatu da Carlos Blanco Aguinaga, berak nahiko zukeen moduan. Irakurtzeko eta

hausnartzeko gune bihurtuta", adierazi zuen Alda Blanco alabak, inaugurazioan.

Ikusminez ibili zen ekitaldira gonbidatutako jendea Carlos Blanco Aguinaga guneko geletan eta pasabideetan zehar. Harriduraz hartu zuten askok, ez baitzuten San Juan plazaren azpian halako espaziorik espero. "Plazaren erdian zulo handi bat izan dugu luzaroan. Askotan galdetzen zidaten, eta proiektua azaltzen saiatzen nintzen. Baina ikustea bezalakorik ez dago", aipatu du José Antonio Santano Irungo alkatea. Zaila da, gaur egun, hirien

"Edukiontzia edukiz bete behar dugu orain"

José Antonio Santano,
Irungo alkatea

erdi-erdian tamaina handiko azpiegiturak hartzeko moduko lursail hutsak aurkitzea. Leku hori asmatu behar izan dute Irunen. "Plaza bat genuen lehen hemen, eta lur tonak azpian", gogoratu du Santanok. Lurra zulatuta, 2.500m²-ko eremua sortu dute, bertan, kultur gune handia eraikitzeko. Haurren, gazteen eta helduen liburutegiak, hemeroteka, ikasketarako gelak, eta bileretarako eta bestelako kultur jardueretarako aretoak ditu CBAk. Aukera asko ematen ditu azpiegitura berriak. Orain "erronka" handia dutela onartu du Santanok: "Edukiontzia edukiz bete behar dugu".

Liburutegi handia eta modernoa

Ikust Alaia eraikinekoa ordezkaturako duen liburutegia da CBA proiektuaren erdigune. Aurrekoa baino bi aldiz handiagoa da, 1.200m²-ko zabalera baitzuen Ikust-Alaiak. Erosoagoa ere bada, solairu bakarreko areto zabala baita. Gelak egin behar izan badituzte ere, banaketa oso argia dela adierazi du Iñaki Ceberio udal liburuzainak: "Sartu bezain pronto, eremu guztiak ikusten dira. Dena begien bistan dago". Material gardena eta altzari baxuak erabili dituzte horretarako. Liburutegiaren tamainak baditu eragozpenak, materiala lekual-

"Sartu bezain pronto, eremu guztiak ikusten dira. Dena begien bistan dago"

Iñaki Ceberio, liburuzaina

datzeko gaintu beharreko distantzia, esaterako. Dena den, arazo horri irtenbidea emateko baliabideak aurrekusi dituztela azaldu du Ceberio: "Altzariak gurrupilak dituzte, eta ez dago arazorik beharren arabera mugitzeko". Liburutegien arloan erreferentzia diren nazioarteko erakundeekin jarraibideak kontuan hartu dituzte, kultur gunea eraikitzerakoan eta antolatzekoan. "Estandar guztiak betetzea ezinezkoa da", aitortu du, hala ere, Ceberio.

Orain arte, nahikoa lan izan dute materiala Ikust Alaia eraikinetik Carlos Blanco Aguinagara mugitzen. 80.000 liburu eta aldizkari baino gehiago jaitsi dituzte. Inauguraziorako, materiala eta altzariak modu batean kokatu eta antolatu dituzte. Hala ere, Iñaki Ceberio adierazi du litekeena dela hurrengo asteetan aldaketak izatea: "Hemendik aurrera ikusiko dugu hartu ditugun erabakiak zuzenak diren, edo moldatu eta hobetu behar diren". Liburuzainak onartu du hilabeteak beharko dituztela liburutegiaren funtzionamendu onena lortu aurretik. Urriaren 5az geroztik, martxan dira liburu maila eta gainerako zerbitzu arruntak. Hasieran, "berri-tsunagatik" jende gehiago espero dutela azaldu du Ceberio: "Ikusiko dugu oihartzunak zenbat irauten duen". Ohiko zerbitzuez gainera, jarduera gehigarriak antolatuko dituzte. Eskaini ahal izango dutenari buruz hitz egiterakoan, Ceberio nahiago izan du zuhurra izan eta hitzak neurtu: "Denboraren poderioz ikusiko dugu noraino iritsi gaitzkeen". Kulturari bultzada emateko beste baliabide bat du orain Irunek.

Kalera irtengo da Irungo arte gaztea

Kontenporanea topaketa hartuko du San Juan plazaren inguruak urriaren 17an eta 18an

Gazteek kudeatutako eta kultur sorkuntzara bideratutako gunea zuen helburu 2015eko aurrekontu parte hartzaileetako proposamen batek. “Ez zen oso zehatza”, adierazi zuen maiatzean Belén Sierra orduko Irungo Udaleko Kultura ordezkariak. Proposamen hori itxuratzeko, Irun Factory sorkuntza espazioko arduradunekin jarri ziren harremanetan. Kontenporanea proiektua izan da elkarlanaren uzta. Artista gazteen topaketa antolatu dute, urriaren 17-18ko astebururako



Ekimena gazteek kudeatu beharko zutela zioen proposamenak. Horretarako, Irun Factoryrekin nolabaiteko harremana izan duten zazpi gazte bildu zituztela azaldu du Helga Massetani arte zentroko arduradunak: “Guk koordinazio orokorra egin dugu, eta kudeaketan lagundu diegu. Baina erabaki nagusiak haiek hartu dituzte”. Talde anitza eta aberatsa sortu dute gazteek. Artearekin eta komunikazioarekin lotutako arlo ezberdinetan arituak dira. Gehienek ez zuten elkar ezagutzen. Edonola ere, harreman naturala eta atsegina sortu dute hasieratik. “Ideia interesgarria iruditu zitzaigun”, onartu du Mónica Gonzálezek. Lanerako, bakoitzaren ikasketen edo interesen arabera, ardurak banatu dituzte: komunikazioa, diseinu grafikoa, edukiak, kudeaketa, produkzioa, ikus-entzunezkoak edo argazkilaritza, besteak beste.

Sortzaile gazteen topaketa antolatu dute. Urriaren 17an eta 18an izango da, kalean, San Juan Plazaren inguruan. Bi zatitan banatu dute ekimena. Lehenengoa, 30 urtetik beherako artisten erakusketa izango da. Izena emateko epea zabaldu dute udan, eta hautaketa lana egin dute ondoren. Hamabost artista aukeratu dituzte guztira, diziplina ezberdinetan espezialistak: pintura, ilustrazioa, argazkilaritza, ikus-entzunezkoak, bideojokoak etab. Erakusketa asteburu osoan zehar ikusi ahal izango da, “iraunkorra” izango dela baieztatu baitu Gonzálezek. Artista gazte horientzat, haien obra ezagutarazteko aukera bikaina izango da. “Artista hasiberriarentzat zaila da bere obra leku publikoetan erakustea. Gainera, ez da berdina erakusketa auzoko tabernan egitea, edo ondo pentsatutako eta prestatutako ekimen batean parte hartzea”, gogoratu du Helga Massetani.

Formazioa izango da Kontenporanearen beste adarra. Sektorean bidea egin duten artistak gonbidatu dituzte, hitzaldiak eta tailerrak emateko: Ainara LeGardon, Rafa Rodrigo, Zuhar Iruretagoiena, Miriam Isasi, Joseba Larratxe, Hernán Ordoñez, Jaime de los Ríos, Judas Arrieta, Thais R. Varela eta Mai Egurza. Artista horien presentziak balio erantsia emango dio topaketari. Gazteei jarraipenak eta irakaspenak emateaz gainera, erakusketan jarriko dituzten obren inguruko iritziak azaldu ahal izango dizkiete. Ez hori bakarrik, kontaktuen zerrenda puzteko beta ere emango baitu Kontenporaneak. “Artearen munduko jendea erakartzea izan da ideia, harremanak egin ahal izateko”, argitu du Ibai Aizpurua talde antolatzaileko kideak. Gazteek eman beharreko lehen urratsak errazte aldera, bizirauteko kit bat prestatzen ari direla azaldu du Aizpurua: “Lehen proiektuak aurrera eramateko baliabideak bilduko ditu: dendak, inprimatzeko tokiak, diru-laguntzak eta bekak, esaterako”.

Tokiko erreferentzia izan nahi du Irun Factoryk

Proiektu publiko-privatuaren adibide konplexua da Irun Factory. 2013an sortu zen, Irungo Udaleko Kultur Arloaren eta Artitadetó artisten elkartearen ekimenez. Formatu berezi horrek, abantailak eta desabantailak dituela aitortu du Artitadetó elkarteak Helga Massetani: “Oso kolektiboa eta parte-hartzailea da. Baina administrazio eta burokrasia kontuetan, arazoak sortzen dira”. Hirian existitzen ez zen azpiegitura jarri zuten martxan: arte garaikiderako espazioa. José Antonio Loidi kaleko lokala egokitzeko eta antolatzeko, Bidasoaren bi aldeetako artisten multzo bat kontratatu zuten. Bi hilabeteko lana eskaini zieten, faktoria sortzeko. “Nahiago genuen

pertsonetan inbertitu, produktuetan edo materialean baino. Emausetik edo zakarrontzietatik hartu zituzten objektuak, eta altzariak sortu zituzten”, gogoratu du Massetani.

Bi lan ildo izan ditu Irun Factoryk bere ibilbidean: artista gazteei sorkuntzan laguntzea eta industria sortzaileari bide ematea. Berritzaile diren ekintzaileak sartzen dira sektore horretan. Bi helburu horiek lortzeko, erakusketak, formaziorako tailerrak eta jarduerak egin dituzte. Bestalde, artista batzuk obra pertsonalak edo kolektiboak lantzen aritu dira lokalean. Baina 2015ean, beste urrats bat eman du Irun Factoryk. Norabide egokian egin dutela uste du Helga Massetani: “Hiriarekin komunikatzea zen Irun Factoryk zuen erronka handienetako bat. Azaltzea zer egin daitekeen hemen, espazio irekia dela eta proiektu artistiko, sortzaile edo kulturala duen edonor hurbil daitekeela”.

2015aren lehen erdian, *Auzoak* ekimena aurrera eraman dute. Auzo elkarteekin hitz egin dute, eta lau izan dira parte hartu nahi izan dutenak. Artista bana bidali dute auzo bakoitzera, ikerketa zabal bat burutu ondoren, proposamen artistikoak egin zitzaizkien. Hiriarekin eta bizilagunekin konektatzeko beste modu bat izan daiteke Kontenporanea. Jarraipena behar du, ekintza isolatu bilakatuko ez bada. Hala ere, dena ez dago aurtengo antolatzaileen esku. “Emergentzia egoeran gaude leku guztietan, eta proiektu honek etorkizunean segida izango duela bermatzerik ez dago”, onartu du Helga Massetani. Egoerak egoera, Irungo artearen sarea ehuntzeko ahaleginean jarraituko du Irun Factoryk.





Ketty's Academy

- Klaseak taldeka eta pertsonalizatuak
- Esperientzia zabala ingelesaren irakaskuntzan
- Enpresentzako klaseak: ingelesa, alemana, italiara, frantsesa, espainiera
- Maila guztiak
- Tituluak eskuratzeko klaseak

EGONALDIAK EENUetako familirekin



J. M. Iparragirre
kalea, 10 - behe 4
IRUN
652 777 360
ketysacademy@gmail.com

Ingelesa 4 urtetik aurrea !!



Bularreko minbiziaren aurka, arrosa

Lazo, zapi eta globo arrosak ikusi ahal izango dira Irunen urriaren 14tik 21era. AECC minbiziaren kontrako elkartearen kanpainaren parte dira. Bularreko minbiziaren nazioarteko egunaren harira antolatu dute, urriaren 19an izango baita. “Ohiko gaixotasuna da, baina kontrolatuta dago gaur egun. Bilakaera horretan, funtsezkoa izan da sentsibilizazioa”, adierazi du Ana Fernández de Casadevante Bidasoko AECCko presidentea. Bide horri eusteko, kontzientziatzeko lanean segituko dute.

Kontzientziazio kanpaina antolatu du AECC minbiziaren kontrako elkarteak

**BULARREKO MINBIZIAREN
AURREAN
EZ ZAUDE BAKARRIK**

“Ez zaude bakarrik” eta “Bat egin arrosarekin” dira Gipuzkoako AECC minbiziaren kontrako elkarteak aurten hautatu dituen leloak. Arrosa da bularreko minbiziarekin lotzen den kolorea, eta arrosez bete nahi dituzte kaleak eta plazak. Irunen, urriaren 15ean egingo dute ekimen nagusia. Eusko Jaurlaritzak, Osakidetzak, Irungo Udalak eta Nagusilan elkarteak antolatzen duten Ttipi-ttapa ekimenarekin bat egingo du AECCk. Parte hartzen duten adinekoek zapi arrosak eramango dituzte ibilbidean zehar, eta lazoak eta globoak banatuko dituzte. Amaieran, globo arrosak askatuko dituzte, bularreko minbiziaren ondorioz hildakoen oroimenez. Bestalde, poltsa eta betaurreko arrosak salduko dituzte astean zehar, minbiziaren aurka dirua biltzeko.

Bularreko minbizia ohikoa da oraindik ere. 500 kasu inguru antzematen dituzte urtero Gipuzkoan. Gehienak emakumezkoak izaten dira, baina gizonezkoek ere eragiten die. Garaiz diagnostikatuz gero, sendabidea izaten dute gehienek. Horretarako, auto esplorazioa gakoa izan daitekeela nabarmendu du Oihana Palacin Bidasoko AECCko gizarte langileak: “Garrantzitsua da jakitea nola azalerrak den, nola antzeman daitekeen”. Diagnostiko azkarrerako, mamografiak egitea da beste aukera. “Probak egitea gomendatzen dugu”, baieztatu du Ana Fernández de Casadevante. Jendearen kontzientziazio maila handitu dela azaldu du presidentea, eta gomendioek kasu egiten diela.

Kanpaina gehiago ere egiten ditu AECCk urtean zehar, beste minbiziarekin lotuta. Koloneko minbiziaren kanpainaren baitan, esaterako, jardunaldi gastronomikoak egi-

ten dituzte. “Elikadura egokia prebentziorako modu izan daiteke”, gogoratu du Palacinek. Kolonoskopiaren proba Gipuzkoan doakoa dela azpimarratu du gizarte langileak. Azaleko minbiziari dagokionez, hondartzara hurbiltzen dira AECCko kideak. “Babesaren eta hidratazioaren garrantziaz informatzen dugu, eta melaninaren probak egiten ditugu”, aipatu du Fernández de Casadevante. Biriketako minbiziaren kontra, erretzeari uzteko ikastaroak antolatzen dituzte. Doan, eta interesa duen edonori zabalik.

Gizarte babes eta laguntza psikologikoa

Prebentzio lana bikaina denean ere, beti egongo dira minbizia duten gaixoak. Diagnostikoa jasotzen duten momentua oso gogorra da haientzat, eta senideentzat. Inpaktuaren tamaina azaldu nahi izan du Ana Fernández de Casadevante: “Zama ikaragarria erortzen zaizu gainera”. Momentu horretan AECCra hurbiltzen dira gaixo eta senide asko, aholku bila. “Galduta egoten dira, eta lehen orientazioa behar izaten dute”, jakinarazi du Oihana Palacinek. Gizarte atentzioa eskaintzen dute AECCn, astelehenean ostiralera, Foru kaleko egoitzan. Laguntza teknikoak ere ematen dute, zaila eta garestia baita material ortoprotesikoa eskuratzea. Oheak eta gurpildun aulkiak maileguan uzten dituzte.

Ostegun goizetan psikologo bat izaten da elkartearen egoitzan. Gaixoaren eta senideen egoeran arlo psikologikoak duen garrantzia “oinarrizkoa” dela onartu du Palacinek: “Gaixoarenaz gainera, zaintzailearen egoera psikologikoa erabakigarria da. Ez baldin badago ondo, ez du gaixoa behar bezala zainduko”. Egoera hori hobetzeko,

bakarkako eta taldeko psikoterapiak eskaintzen ditu AECCk. Parte hartzaile asko ambulatoriotik edo ospitaletik bidalita iristen dira. Beste batzuk, ezagunek gomendatuta. “Ahoz ahokoak funtzionatzen du. Esperientzia ona izan duen jendeak gomendatu egiten du”, adierazi du Oihana Palacinek.

Prebentzioa eta babes ezinbestekoak dira. Baina minbiziarekin amaitzeko giltza ikerketak izan dezake. AECCk ikerketa zerbitzurik ez duen arren, ikerketa sustatzeko diru-bilketak egiten ditu. “Irunen maiatza-ekaina aldean egiten dugu, eta jende askok parte hartzen du”, esan du Fernández de Casadevante. Beste diru iturriak ere baditu elkarteak: kanpainetan eta beste jardueretan biltzen duten dirua, donazioak eta bazkideen ekarpenak. Zentzu horretan, bazkideak behar dituztela nabarmendu du presidentea: “Gero eta bazkide gehiago izan, orduan eta diru gehiago bideratuko dugu ikerketara. Bazkide izateko ez dugu gutxieneko diru ekarpenik eskatzen”.

Bazkideez gainera, boluntarioak ere bilatzen ari direla erantsi du Oihana Palacinek. Ospitaleetan eta etxeetan laguntzeko jendea behar dute. Interesa duenak on-line formazio bat egin behar du lehenengo, etxean eta internet bidez. Jendea animatu nahi izan du Ana Fernández de Casadevante presidentea: “Denok dugu egunean tartexu bat. Horrenbeste behar duten gaixoei laguntza pixka bat ematea polita da”. Edozein ahalegin izango da ongi etorria minbiziaren kontrako borrokan.

“Gazteak erakartzea da mendi elkarte guztien erronka”

Aitaren eskutik hasi zen Julio Iturre mendira joaten, 1970eko hamarkadan. Orain, zaletasuna gaztetxoei transmititu nahian dabil, beste zenbait eginbeharren artean. Irungo Mendizaleak elkartearen presidentea da. Joseba Redondo ordezkatu du, eta urte erdia darama karguan. Elkarteko bazkide beteranoa da Iturre, duela hogeita hamar urte inguru eman baitzuen izena.

JULIO ITURRE



Lehen hilabeteak egin dituzu Irungo Mendizaleak elkartearen presidentea karguan. Nolako esperientzia izan da?

Joseba Redondok presidentea izateari utziko ziola jakinarazi zuten azken batzarrean. Hamalau urte egin zituen berak. Bazkide batzuek nire burua aurkeztea proposatu zidaten. Buelta batzuk eman nizkion, hautagai-zerrendarako jendea bilatu nuen, eta izena eman genuen. Hautagaitza bakarra izan zen gurea, beraz, lekukoa hartu genuen. Esperientzia ezberdina izan da. Kanpotik ikusten genuen lana ematen duela, baina barruan, lan horren benetako zamaz ohartu gara. Elkartean kirol arloa eta gastronomikoa ditugunez, ardura bikoitza da.

Gaur egun, zein da elkartearen egoera orokorra?

800 bazkide inguru gara guztira. Gehiena jende heldua da, elkar-

tean denbora asko daramana. Irteera batean mendizaleei NAN-ak eskatu eta kalkulagailua aterako bagenu, 60 urteren inguruan ibiliko litzateke batez bestekoa. 40 urtetik beherako neska talde bat hasi da duela gutxi, eta harrizta gaude, baina poztzen gara. Egia da badaudela bazkide asko soilik elkarte gastronomikoa erabiltzen dutenak, mendira joateko ohiturarik ez dutenak. Bestalde, bi lokal ditugu. Batean elkarte gastronomikoa dago, eta bestea bileretarako eta erakusketetarako erabiltzen dugu.

Zeintzuk dira urtean zehar antolatzen dituzuen jarduerak?

gusiak?

Hamabost egunean behin irteera bat antolatzen dugu, asteburuan. Bazkide bat arduratzen da irteera bakoitza antolatzeaz. Lekua hautatzen du, ibilbidea planifikatzen du eta gainerako guztia kudeatzen du. Autobusean joaten gara, ibilaldia egiten dugu, eta gero bazkaltzen geratzen gara inguruko jatetxeen batean. Bazkaririk ez baldin badago tartean, mendiak ez du zentzurik. Barrira energetikoez oraindik ez dute arrakastarik mendizaleen artean. Gero, hilabete bakoitzeko ostegun batean, bereziki jubilatuentzat pentsatutako irteerak antolatzen ditugu, eskualdeko beste

elkarte eta pertsona batzuekin elkarlanean. Asteburuetako plan berdina izaten da, baina astean zehar.

Bidaia luzeagoak ere egiten dituzue. Mallorcan ibili da talde bat urrian.

Egia da, urtean bi edo hiru bidaia egiten ditugu. Zubiak edo aste santuko eta udako oporrak aprobetxatzen ditugu horretarako. Aurten, hamar egun pasa ditugu udan Granadan. Mendia eta kultura uztartu ditugu. Urrian Mallorcan joan dira 60 lagun inguru, Tramuntana mendizerrara. Datorren urteko udan Bulgariara joan nahi genuke.

Interneten eta sare sozialetan zabaldu ari zarete.

Nik hogeita urte daramatza interneten munduan sartuta. Nire ogibidea da, web guneak programatzen eta diseinatzen ditut. Elkartean ere ni arduratzen naiz arlo horren kudeaketaz. Sare sozialetan hiru kanal ditugu, facebook-en, vimeon, eta flickr-en. Web gunea pixkanaka osatzen ari gara, zaila baita denbora asko eskaintzea. Laster urrats handi bat emango dugu: bazkideek irteerak etxetik ordaindu ahal izango dituzte, elkartera hurbildu behar ez daitezela. Berdina egingo dugu lizentzien erreserbarekin. Bestalde, irteeretak argazkien eta bideoen datu-base handia osatzen ari gara, bazkide batzuen lan eskuzabalari esker.

Zein bidaia egin duzu mendietan? Zein esperientzia izan da bereziena?

Marokon, Turkian, Armenian, Georgian, Kazakstanen, Uzbekistanen, Suedian, Norvegian eta Finlandian izan naiz. Mendizale bitxia naiz, ez baitut altuera bilatzen. Ez dut 6.000 edo 7.000 metroko mendiak igotzeko be-

harririk. Leku ezezagunak topatzea da gehien gustatzen zaidana. Mendiaz eta paisaiatzat gozatzea, eta ahal dela, beste kulturak ezagutzeko. Ni, esaterako, harrizta gelditu nintzen Turkiako Taurus mendikatean. Zeharo ezezaguna da, baina merezi du.

Inguruko mendietako zein leku gustuko duzu?

Aiako Harria. Irundik hasita, bigarren tontorra, batez ere. Aitarekin eta anaiarekin igo nintzen lehen aldiz. Beste leku polit asko ere badaude. Larrun esaterako, pistatik igotzen ez baldin baduzu. Jaizkibel ere bai, eskualdeko ezezagun handia izan baita luzaroan. Pirinioetan, Monte Perdido aukeratu nuke. Polita da, eta xarma handia du.

Zeintzuk dira datozen urteotan elkartearen izango dituen erronka nagusiak?

Denbora daramagu Erlaitz mendi elkartearekin egutegi bateratua egin nahian, hiriko mendizale guztien mesedean. Modu horretan, irteera bat egongo litzateke astebururo. Bestalde, gazteak mendira erakartzeko saiakera egin nahi dugu. Jendea gero eta helduagoa da, eta ez da ikusten erreleborik. Zaila da 50 urtetik beherako jendea topatzea mendian. Guk hurrekin lan egiten hasi nahi dugu, hamar-hamabi urtekoekin. Irteera bereziak izango dira, bestelako jarduerak konbinatuko dituztenak, aspertu ez daitezela. Pizgarriak bilatu behar dira, esaterako: eskalada ikastaroa, orientazio jokoak, altxorren bila, merienda bat... Gazteak erakartzea da mendi elkarte guztien erronka.



www.kineesis.net

www.k-stretch.com

Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 508 298 640

- METODOA: K-STRETCH®
- METODOA: HIPOPRESIBOIA®
- BERREZIKETA
- POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT



Izena aldatuko du Irun Rugby Taldeak

Txingudi izango da errugbi elkarte, Hondarribira zabaldu ahal izateko



Elkartearen izena aldatzea erabaki dute Irun Rugby Taldeko bazkideek, urriaren 5eko ez ohiko Batzar Orokorrean. Txingudi Rugby Taldea izango da aurrerantzean. Dokumentuetan, "Irun-Hondarribia" azpi-izendapena eramango du beti. Hautu historikoa da, ia berrogeita hamar urteko ibilbidea duen elkartearentzat. Hondarribiko ikastetxeetan errugbia zabaltzeko lana errazteko asmoz egin dute. Irungo Udalaren "gomendioa" jarraitu dutela azaldu du Iñaki Alberdi elkarteko presidentek. Izenaren aldaketak ekar ditzakeen abantailak zerrendatu ditu: "Hondarribiko eskoletako eta kirol instalazioetako ateak zabalduko dizkigute. Gainera, diru-laguntzak jaso ahal izango ditugu".

Batzar Orokorrean erabakia onartu ondoren, administrazio arloko gestioak egin beharko dituzte errugbi elkarteko ordezkariak, aldaketa ofizial izan dadin. Hala ere, errugbi elkarteko kideak izendapen berria erabiltzen ari dira dagoeneko. Kostata, hori bai. "Arraroa da, baina denborarekin denoi mesede egingo digula uste dut", onartu du Iñigo Camarero elkarteko kide beteteranoak. Sare sozialetan eta web gunean argitaratzen dituzten sailkapenetan ageri da jada Txingudi Errugbi Taldea. Ohitzen hasteko garaia da, beraz.

Hasitako bideari jarraituz

Denbora darama Irungo errugbi elkarteak eragin eremua zabaldu nahian. 2014ko azaroaren 23an, Txingudi Errugbi Eskola sortzeko akordioa sinatu zuen Hendaiaiko errugbi elkartearekin, Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren babespean. Es-

kola kirola programaren baitan egin ohi dituzten saioez gain, errugbiaren praktika soinketa orduetara zabaltzea ahalbidetu zuen akordioak. Joan den ikasturtean tamaina txikiko esperientzia egin zuten. 2015-2016 sasoian martxa handiagoa hartu du Txingudi Errugbi Eskolak.

Dena den, lehen esperientziak arrakasta izan zuen. Irungo La Salleko, Hondarribiko Ama Guadalupekoako eta Hendaiaiko Lissardy, La Plage eta Collège Saint Vincent eskoletan aritu ziren Irungo eta Hendaiaiko errugbi taldeetako kideak. Errugbi hastapen saioak eskaini zituzten, euskaraz, gazteleraz eta frantsesez. 200 haur inguru izan ziren parte hartzaileak. Horietatik, hogeita hamarrek eskualdeko errugbi elkarteetako batean izena eman zuten ondoren, kirolean jarraitzeko asmoz. Irun Rugby Taldearen izenaren aldaketak badia osora zabaltzeko ahaleginari bultzada emango dio.

Igotzen saiatuko da talde nagusia

Euskal Ligako lehen mailara igotzea izango du helburu Txingudi Rugby Taldeko lehen taldeak. Aurreko denboraldian hurbil izan zuen, baina Hernani Bren aurka galdu zuen partida erabakigarria. Amurrioko Nerbioi, Gasteizko Gaztedi, Igorreko Arratiko Zekorrak, Arrasate, Gernika eta Zarautz izango ditu aurkari Txingudik. Multzoko lehen edo bigarren tokian amaitu beharko du, igotzeko lehian sartu ahal izateko.

Aurten ere aldaketak izan dira taldean. Alain Tamagnon entrenatzaileak Txingudi utzi du, eta Iñaki Lekuonak ordezkatu

du. Jokalariei dagokienez, Imanol Aizpuruarena eta Iker Oscozena izango dira hutsune handienak. Hamabost urte egin dituzte biek taldean. Erik Gonzalez, Fede Bergaretxe, Samir Bromose eta Roberto García izango dira Txingudi Errugbi Taldea indartuko duten jokalaria. Gazteen talde-tik hiru jokalaria igoko dituzte.

Jokalarien lizentzien prezioa salatu dute elkarteko ordezkariak. 418 euro ordaindu

beharko dituzte jokalariek, duela hiru urte baino lau aldiz gehiago. Laguntza emateko ekimenak antolatuko dituztela adierazi du Iñigo Camarero. Joan den urtean egutegi bat osatzeko biluztu ziren. Aurten crowdfunding kanpainia egingo dute. Gainera, 300 euroren truke jokalarien babesle izateko aukera eskainiko diete eskualdeko enpresei.

Folder

Paper-dendarik merkeena
ZIURTATUTA

Kolon ibilbidea, 2
(atzeko aldea)
www.kopiar.net
kopiar@kopiar.net
943 63 93 01

Beste garai baten aztarna

Zailtasunak zailtasun, larunbateroko hitzorduari eutsi dio azoka txikiak



Hamarnaka saltoki eta ehunka erosle biltzen dira larunbat goizetan Irungo Urdanibia plazan eta ospitale zaharraren aurrean. Ikuskizun bitxia da azoka txikia, aspaldiko bizi-moduaren oinordekoa. Saltzaileek oihuka iragartzen dituzte produktuak. Erosleak berrikerian gelditzen dira edozein izkinatan, poltsa, karro eta guzti. Zortzi hilabete pasa dira azoka Urdanibiara bueltatu zenetik. Urte osoa egin zuen lehenago erbestean, Dolores Salis kalean, plaza zaharberritzen ari ziren bitartean.

Itxura modernoa du Urdanibia plazak. Baina mantendu ditu ezaugarri historiko eta bereizgarriak: petrila, iturria, aska eta zuhaitzak. Larunbatetako azoka txikia ere berreskuratu du, joan den otsailaz geroztik. Hamarkadetan Urdanibia plazari lotutako elementua izan da. Eremu naturalera itzuli da, beraz. Nortasun handiko jarduera da merkata. Aski da itzuli txiki bat ematea bitxikeria asko antzemateko. Azokak hiru zati bereizi dituela, esaterako. Oinetakoak, arropak eta oihalak saltzen dituzte Urdanibia plazaren alde batean. Bestean, base-rritarrak eta etxeko produktuak eskaintzen dituztenak egoten dira. Ospitale zaharraren atarian, bestelako elikagaiak saltzen dituztenak. Saltzaileen eta produktuen jatorria askotarikoa da. Fermin Muguruzak ondo deskribatu zuen azokaren aniztasuna, Azoka Eguna abestian: "Munduari

bira Irun herrian".

Adinari dagokionez, berriz, homogeenoa da azoka. Saltzaileen artean ikusten dira neska-mutil gazteak. Diru iturri gehigarria da azoka haienentzat. Erosleen profila, ordea, finko samarra da. Egoi Herrero saltzaile irundarrak onartu du bezero gehienak adineko emakumeak direla. Olaberria auzoko Itziar Irastorzak baieztapena berretsi du. Alabaina, beste errealitate baten berri ere eman du: "Hurbiltzen diren gazteen artean, gehiago dira gizonezkoak". Herrero bezero fidelak mantentzen dituen arren, azaldu du gero eta gehiago konparatzen duela jendeak saltoki ezberdinen artean: "Garai batean kalitateari begiratzen zitzaion, batez ere. Orain, aldiz, prezioari garrantzia handia ematen dio bezeroak".

Zaila izaten da erosleen erabakiak azaltzeko arrazoi orokorrak topatzea. Hala ere, nahiko argi dago azoka txikiaren abantailak zeintzuk diren. "Jendeak badaki bertako produktuak izaten direla, etxekoak. Guk sasoiko barazki freskoak eskaintzen ditugu, bezperan bildutakoak", gogoratu du Itziar Irastorzak. Bezeroarekiko harremana ere azpimarratu dute saltzaileek. Gertukoa dela adierazi du Irastorzak: "Supermerkatu batean erosita, tomatea txarra baldin bada, ez zara kontu eske joango. Edo esango duzu zer edo zer, baina ez espero erantzunik. Merkatuan, berriz, bezero batek esaten baldin badit tomate bat ez zela ona, beste bat emango diot".

Iritzi kontrajarriak kokapenaren inguruan

Saltzaileak eta bezeroak Urdanibia plazako kokapen berrira ohitzen ari dira oraindik. Azoka txikia ez baita plazako lanen aurrekoaren berdina. Denetariko iritziak daude. "Plaza ondo dago, oso polita da", aitortu du Miguel Ángel Camacho zapata saltzaileak. Gogorra izan da, baina, merkatuaren kokapenaren aldaketan ondorioei buruz hitz egiterakoan: "Dolores Salis kalean egon ginenean, urte oso bat zakarretara bota genuen. Jendeak etortzeko ohitura galdu zuen, eta ezin izan dugu lehengo maila berreskuratu". Erdigunetik urrunago dagoenez, azoka txikira astero hurbiltzeari utzi zioten bezero batzuek. Maiztasunak behera egin zuen nabarmen. "Kontuan hartu behar da gehienak helduak direla, eta oinez etortzen direla, karroarekin", gogoratu du Egoi Herrero.

Abantailak ere bazituen, ordea, Dolores Salis kaleko kokapenak. Doan aparkatzeko lekua dago inguruan, eta bezero askok baliatzen zuten. "Autoz etortzen zen jendearentzat eroso zen. Produktu gehiago, eta pisutsuagoak eros zitzaizuten. Fruta-saltzaileek nabaritu dute gehien", nabarmendu du Itziar Irastorzak. Urdanibia plaza berriarekin batera, TAO sistema ezarri dute inguruko aparkalekuetan. Horrek kalte handia egin die urrutitik etortzeko ohitura zuten erosleei. Iparraldeko jende askok Irungo azokara hurbiltzeari utzi diola baieztatu du Irastorzak. Lehen hilabeteetan bezeroek jasotako isunen kopurua esanguratsua izan da. Herrero uste du udaltzainek "zorrotzegi" jokatu dutela.

Saltzaileei ere eragiten die aparkalekuaren arazoak. 9:30ak arte autoak sartzen uzten diete, produktuak deskargatzeko. Gero, saltoki bakoitzeko norbaitek aparkaleku bila eraman behar izaten du kotxea, eta 13:30etan bueltatu, materiala jasotzeko. "Dolores Salis askoz erosoagoa zen, autoa ondoan utz genezakeelako", aipatu du Irastorzak. Kritikoa da emakumea Urdanibia plazako kokapenarekin, eta eragozpen gehiago ikusten ditu, gainera: "Urdanibian edozein jai dagoen bakoitzean lekualdatzen gaituzte. Udan batez ere, genero gehien dugun garaian". Dena den, azokaren arazorik handiena ez da kokapena, ezta aparkalekua ere. "Merkataritza gune handiek eta multinazionalen garmatzate galbidera", salatu du Miguel Ángel Camachok. Kontsumo ohiturek aspaldi hartutako norabidea da azoka txikiaren etsai.

Irungo La Salle. HH Uxue Iturria 5 urte



Irungo La Salle. HH Maialen Perez 5 urte



Arrigain Asesores S.L.

ZERGAK - LAN-KONTUAK - KONTULARITZA - ASEGURUAK



Zerbitzuak:

Kudeaketa administratiboak, laborialak,
kontabilitatzaileak eta zergienak
Itelgailuen eskuokidaketak
Ondarearen transmisioak, dohaintzak, akordaketak...

Errenta aldarpenak
Aseguru orokorrak
Eta abar...

Txingudi Ikastola BHI. 1. maila. Beñat Perez de Arenaza

Algaraka

Emandako argazkiari erreparatu eta istorio bat sortu behar dute ikasleek, umore puntu batez.

**ZALDIEN ARRISKUAREN TRAFIKO SEINALEA**

Egun batean, Aitor izeneko mutil gazte bat bere lagunekin zebilen igandean egingo zutenari buruz eztabaidan. Ez zekiten zer egin, eta bat-batean, Mireni, Aitorren lagun bati, idea bat bururatu zitzaion. Mirenek bizikletaz ibiltzea proposatu zuen, baina ez zitzaion ideia gustatu, ez zutelako kirola atsegin. Gero, Jonek mendira ibiltzera joatea proposatu zuen, baina hori ere ez zitzaion asko gustatu. Azkenean, larunbatean hitz egingo zutela erabaki zuten.

Hurrengo egunean, oraindik osteguna zen, eta Aitorrek eta bere lagunak ideiak pentsatzen ari ziren. Ohartu orduko, larunbata zen, baina zorritzarrez inork ez zekien zer egin. Zer egin ez jakin arren, hitz egiteko gelditu ziren eta ideiak pentsatzen atsekabetuak zeudenean, makina bat auto pasatzen hasi zen, eta autoen soinua-ekin ezin zuten hitz egin. Orduan, Aitorri ohar-kabea ideia bat bururatu zitzaion. Aitorrek hogeitaz urte zituen, gida baimena ateratzea pentsatu zuen eta bere lagunei ongi iruditu zitzaion, iganderako plan bat zutelako.

Igandean, gidatzeko azterketa teorikorako ikasten hasi zen eta nahiko ongi zekien dena galdera bat izan ezik. Zaldi bat agertzen zen trafiko seinalea asmatzen saiatzerakoan, beti huts egiten zuen. Ez zen oso garrantzitsua seinale hori, ez zuelako asko ikusiko, eta ez zen asko kezkatu. Hurrengo asteko larunbatean, azterketa egin zuen, eta hogeita hamarretik hogeita bederatzira ateratu zuen; beraz, gainditu zuen. Igande hartan, autoarekin praktikatzeko hasi zen, eta hurrengo igandean, azterketa egiterakoan, garrantzirik gabeko bi akats egin

zitu. Beraz, gainditu zuen. Oso pozik jarri zen, eta bere lagunei deitu zien gainditu zuela esateko.

Lagunak poztu ziren, eta guztien artean, auto bat erosi zuten. Aitorri autoa erakutsi ziotenean, estreinatze buelta bat ematea erabaki zuten. Gainera, Jonen urtebetetzea zela aprobetxatuz, pintxo potea egitera joan ziren Donostiara. Kursoaren aparkatu zuten, nahiz eta gogoko ez izan, oso garestia baitzen, baina gainontzeko aparkalekuak beterik zeuden. Bi orduz egon ziren, eta aparkalekurako bueltan, hamar euro ordaindu behar izan zituzten. Denen artean ordaindu zuten eta aparkalekutik atera ziren. A-8 tik bueltan zeudenean, Aitorrek ilara luzeak zeudela ikusi zuen eta "bide sekretutik" joan zen. Bide hori menditik igarotzen zen, eta bat-batean, inoiz asmatzen ez zuten trafiko seinale hura ikusi zuen. Berak uste zuen seinale horrek hondartza bat zegoela adierazten zuela, baina benetan ez zuten hori esan nahi. Iluntzen hasi zuen, eta Aitorrek zerbait ikusi zuen. Pertsona bat zela uste zuen, eta erdi galduta zebilenez, nondik joan behar zuten galdetzea erabaki zuen. Galdetu behar zionean, gasolina agortu eta autoa "gauza" horretatik bizpahiru metrora gelditu zen. Leihora ireki zuen eta nondik joan behar zuten galdetu behar zuenean, zaldi batek irrintzi egin zion, eta ziztu bizian atera ziren guztiak autotik. Ziztu bizian, etxeraino korrika joan ziren.

Handik aurrera, Aitorrek, trafikoko seinale horrek esan nahi zuena betirako gogoratu zuen.

**EUSKARAZ,
IRUNEN
BARRENA**

Irungo Kateako S.R.A. andreak kantatua. Luisa Aranburuk bere amari ikasi zizkion bertso hauek. Ama Oiarzungo Audele baserrian jaioa zen. (El Bidasoa 1959-1-17)

**Zeruak ditu
amabi ate**

Zeruak ditu amabi ate
aingeru bandak guardiyan,
urrez murallak egiñak eta
alaja fiñak erdiyan.

Gloriyak daukan edertasuna,
musikaren alegriyan,
premiyu´ori alkantzatzera
gabiltzan fede garbiyan.

Aita Santu ta errege oiek
obispo eta apaiz guztiyek,
pobre ta abertas diranak berdin
maisur orren justiziek.

Iturria: Nikolas Alzola Gerdiaga
Euskaraz, Irunen barrena.

RESTAURANTE
Muga
JATETHEA

Merkatuko produkturik onenak sukaldatzen ditugu

María Juncal Labandibar, 35 BEHOBIA. 943 620071



Hotzaren eta euriaren alternatiba

Udazkena eta negua iristen direnean Irungo koadrila askok lokaletan pasatzen dute denbora

Telebista eta filmak ikustea, musika entzutea eta, batez ere, hotza eta euria iristen direnean lagunekin leku eroso batean egoteko aukera izatea. Hori da lokal bat alokatzerakoan gazteek bilatzen dutena. Lokal batzuk bi edo hiru koadrilaren artean alokatzen dituzte, merkeago atera dadin. Irungo Enkantia kalean, Uranzu kalearen ondoan, hiru koadrila lokal txiki batean egoten dira. Hara hurbildu gara erreportajea egiteko. Ez da oso handia, lau zapabost sofa dauzkate, telebista eta hozkailu zahar batzuk ere bai. Argi moreak eta urdinak dituzte eta paretak kartelez, argazkiz eta pegatinaz beteta dauzkate. Dena den, lekua nahiko garbi dago.

Mendirra joan, txirrindaz ibili, hondartzara joan, futboleko edo saskibaloian jolastu, parranda egin... Udan gazteek plan desberdin asko egiteko aukera dute, baina udazkena eta negua iristen direnean, beste aukerak bilatu behar dituzte euriari eta hotzari aurre egiteko. "Gaua iristen denean kalean eserleku batean hotzez eta bustitzen egon ordez, edo taberna batera dirua gastatzera joan ordez, lokalera etorri

eta lagunekin giro alai batean egoten gara, hemen ez dugu kontsumitu behar" azaldu digu Andoitz Rekartek.

Beraiantzat topagune bat da. Bertan erabakitzen dute zer egin. Batzuk bakarrik asteburuetan joaten dira, beste batzuk astean zehar zazpietatik aurrera, eta gutxi batzuk ia-ia egunero egoten dira. "Beren lekua Homer Simpsonen bezala, sofan markatuta dutenak dira", goraipatu du Jon

Aragonek. "Normalean astean zehar bromak egiten eta hitz egiten egoten gara, larunbatetan hemen hasten dugu parranda, musika entzuten eta alkohola edaten dugu", erantsi du irribarretsu du Aitor Azurmendik.

Dena den, lokala ez da beraiantzat egiten duten gauza bakarra. Ikasketak, lana eta beste zenbait jarduerak egiten dituzte. "Lokaleko jendeak gauza gehiago egiten ditu. Batzuk gimnasia edo kirola egitera joaten dira, baina garesti diren jarduerak ez ditugu egiten. Adibidez zinemara joan ordez lokalean jartzen ditugu filmak eta hemen ikusten ditugu", azaldu du Ainhoa Irigoyenek.

Antolakuntza

23 gazte diran lokalean, 14 euro ordaintzen du hilero bakoitzak, guztien artean 320 euro balio duen lokala ordaintzeko. Soberan gelditzen den diruarekin beste gastuetarako botea egiten dute (zakarrontziko poltsak erosteko, etab.). Denborarekin, lokala merkeago ateratzeko hiru koadrila bildu dira: bi koadrilatan mutilak dira nagusi, neskak bestean. Adin desberdinetako jendea dago. 19 urte dituzte gazteenek, 22 helduenek. Ondo moldatzen dira. "Beraiek hasieratik zeuden lokalean, eta gu orain dela 3 urte etorri ginen" azaldu digu Jon Aragonek.

Garbiketari dagokionez, astero bikote bat izaten da arduradun. "Normalean errespetatzen da eta nahiko ondo mantentzen dugu". Segidan, irribarre txiki batekin, aste batzuetan oso zikina egoten dela aitortu digu Ainhoak.

Lokalak eta arazoak bizilagunekin

Askotan lokalean arazoak izaten dituzte bizilagunekin eta Enkantia kaleko lokala ez da salbuespena. Ainhoak uste du ulertzen dituztela bizilagunen kezak: "Batzuetan konturatu gabe buila egiten dugu eta eragozpenak sortzen ditugu. Dena den, gutxi molestutzen saiatzen gara."

Astean zehar ez dute arazorik izaten, baina larunbatetan parranda hasten dutenean musika jartzen dute eta, normalean, koadrila guztia biltzen da eta zarata gehiago egoten da. Dena den, zarata ez egiten eta musika apal jartzen saiatzen dira. Bizilagun batzuen jarrera ez dela egokia azaldu du Andoitzek: "Askotan bizilagunak edozergatik kezkatzen dira. Pasa zaigu bizilagun baten batek Udaltzaingoari abisatzea eta udaltzaina etortzerakoan esatea ondo gaudela".

Uranzu ondoko kale honetan hiru lokal egon dira, eta gaur egun bakarria geratzen da. Hiru koadrilen lokal hau mantentzen da hotzaren eta euriaren alternatiba moduan.

GB EVENTOS
Ekitaldien antolakuntza, osorik eta nahi erara

Jai herrikoiak
Ezkontzak
Urteurrenak

Enpresa ekitaldiak
Erakunde ekitaldiak
Gai baten inguruko ekitaldiak

www.gbeventos.es

BAKAILAOA DASTA EZAZU





Deialdiak

IKASTAROAK ALEMANIAN

Zer? 2016ko udan aleman ikastaroak Alemanian burutzeko bekak. Bi aukera: 3-4 asteko ikastaroak. 2 hilabeteko ikastaroak.

Deialdia egiten duena: DAAD. Deutscher Akademischer Austausch Dienst.

Baldintzak: Unibertsitate ikasleak, Aleman Filologiakoak eta aleman itzultzaileak izan ezik.

Epea: 2015/12/01.

Informazio gehiago? DAAD Centro de Información Madrid Calle Zurbarán, 21 (Goethe-Institut) 28010 Madril Telefonoa: +34 91 702 49 20.



Lehiaketak

HONDAKINAK PREBENITZEKO KARTEL-LEHIAKETA

Zer? Hondakinak prebenitzeko Europako Astea azaroaren 21etik 29ra izango da eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak eta Gipuzkoako ikastetxeek "Ikastetxean hondakin sorrera nola gutxiagotu daitekeen" kartel-lehiaketaren lehen edizioa jarri dute abian.

Baldintzak?

- 6-18 urte arteko adina izatea.
- Lanak aurkezteko tamaina A4a edo A3a izango da.
- Pertsona bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du.
- Teknika nahierakoa izango da, eta gaia: ikastetxean hondakin sorrera nola gutxiagotu daitekeen. irailaren 7tik 25ra arte 11etatik 14ra.

Informazio gehiago: www4.gipuzkoa.net/MedioAmbiente/gipuzkoaingurumena/



Jarduerak

FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN XXVI. ASTEA

Zer? 18 eta 30 urte arteko gaztea zara? Gazte epaimahaikide izan zaitezke! Izena eman, 150 plaza zozkatuko baitira!

Izen ematea: urriaren 17ra arte www.donostia.eus/juventud/

Zozketa: urriak 20.

Hautatuak izan diren pertsonen bertaratzeko konfirmazio epe muga: 2015ko urriaren 23a.

Emanaldiaren eguna: urriaren 30a, 16:00etatik aurrera (Antzoki Zaharra).

Data: Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astea urriaren 31tik azaroaren 6ra egingo da.



- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

HITZ EGIN ORAIN edo ISILDU BETIKO



Bai, zuek, gazteok, orain aukera duzue!!! Ba al duzue esatekorik?

... eta zuk, zer diozu? Zure iritzia ere balio du. Zer falta zaio Iruni? Zer aldatuko zenuke? Zer jarriko zenuke?, Zertan gastatuko zenituzke 200.000 euro horiek???

Baaaaa... orain, erabaki dezakezue!!!! Bota zuen proposamena!!! Nola?, AURREKONTU PARTE HARTZAILEEN bidez.

- Zer da aurrekontu parte hartzaile bat? 200.000 euro aukeran jartzen dizkizuna da, diru hori gazteentzako non eta nola gastatu erabaki dezazun. Nork parte hartu dezake? 16 eta 30 urte arteko gazteek.

Epea: urriak 21.

- Nola eta noiz parte hartu dezaket?

- Edozein momentutan www.irun.org/presupuestosparticipativos/presupuestos-juveniles.asp (Irun Txartelarekin edo NANarekin).



copias
colón
soluzio grafikoak

Luis Mariano 12
20302 IRUN

T 943625318
F 943639960



Urriaren 10etik 23ra

Zer? Landetxa Auzko Elkar-teak antolatutako XXII. Aste Kulturala.

Osteguna 15

- 16:00: Ibilaldi neurtua. Irte-
era Auzo Elkartetik.
- 17:00: Liburuak egiteko tai-
lerra. Liburutegian.
- 18:00: Sukaldaritza. Raquel
Elgorriaga, Café Irun. Hegazti
elkartean.

Ostirala 16

- 18:00: Sukaldaritza. Baratz
komunitarioa. Hegazti Elkar-
tean.
- 19:30: Zineforuma. Auzo El-
kartean.

Larunbata 17

- 11:00: Frontoian: Marmitako
txapelketa (Dastaketa 3 euro,
tuperra 5 euro).
-Guatemalarekin elkartasun
merkatua.
-Puzgarriak eta izozkiak
- 11:00: Topoko Plazatzooan
(Andrearriaga): Moto erakus-

keta, "Jorge Lorenzo" eskola.
- 11:00: Kart erakusketa. Biz-
kaia Kalean.
- 16:30: Baserriko bizitza eta
errota. Antojuko errotara bi-
sita, AEtik aterata.
- 17:00: Kart lasterketa. Le-
txunborro - Café Irun. Izena
emateko: 685722119.
- 20:00: "Tango Meza". Parro-
kian. Mariaren bihotza abes-
batza.

Igandea 18

- 10:30: Frontoian: -Pintura
erakusketa.
-II. eskuko merkatua (Postua
jartzeko AEn izena eman)
- 10:30: Bisita historikoa
(AEtik aterata).
- 10:00: Wahi tape tailerra (es-
kulanak).
- 12:30: Frontoian Omenaldia.
-Elkar-teek prestatutako pin-
txoak.
-Toka txapelketa
- 16:30: Zumbathon (eguraldi
txarrarekin urriak 25era atze-
ratuko da).

Ostirala 23:

- 19:00: Antzerkia: "El viejo
cabaret". Auzo Elkartean
Prezioa? Doako sarrera.

Urriak 16tik 18ra

Zer? Autonomiaren, Irigarri-
tasunaren, Guztiontzako Di-
seinuaren, Parte-hartzearen
eta Bizi-kalitatearen erakus-
keta.

Ordua? 11:00etatik
20:00etara.

Non? Ficoban

Informazio gehiago: [www.sq-
lonsinbarreras.com/](http://www.sq-lonsinbarreras.com/)

Urriak 17

Zer? Bakearen Nazioarteko
Eguna dela eta, Elkarteen eta
GGKEen topaketa egingo dute:
Behar Bidasoa, Taupadak,
D.O.A., Gure Laguntza, Txin-
gudi Vida, Tadatum, Proye-
proega, Oscar Romero,
Rokpa Euskadi, Haurralde,
Mundubat, FISC, Solidaridad
Internacional-Nazioarteko El-
kartasuna, Adiskidetuak,
Acnur Euskadi, ONGD Zabal-
keta, Amnistía Internacional.

- 17:30: Emanaldiak: Eraiki
Dantza Taldea, Afrikako mu-
sika taldea, Latinoamerikar
Folklore.

Non? Zabaltza Plazan.

Ordua? 17:00etatik
20:00etara.

Prezioa? Doako Sarrera.

Urriak 21

Zer? Aurrekontu parte hartzai-
leen hirugarren bilera.

Non? Ospitale Zaharreko
hitzaldi aretoan.

Ordua? 19:00etan.

Urriak 17tik 25era

Zer? Antxon Romeroren Mar-
golanen erakusketa.

Non? Kabigorriin.

Prezioa? Doako Sarrera.





Nafarroa ibilbidea, 7 - IRUN

info@ekarinmobiliaria.com

+34 943628333

www.ekarinmobiliaria.com

PRIMERAKO AUKERAK

 <p>Pisua salgai Irun San Juan Azalera 60 m², 2 gela, bihurgela, egongela, sukaldia, trasterkua, berokurutz elektrikoa, hepolderutz, eguzkitua.</p> <p>Ref: 04297 99.000 €</p>	 <p>Pisua salgai Hendiaia Azalera 65 m², 2 gela bihurtz, hain egela, erretara, egongela, sukaldia, terraza, trasterkua, berokurutz elektrikoa, hegaldierantz, eguzkitua eta bota poltsatua. Apekarakua tarro.</p> <p>Ref: 03311 175.000 €</p>	 <p>Pisua salgai Irun San Juan Azalera 80 m², 3 gela, bihurgela, eguzkitua, berokurutz, sukaldia, berokurutz, hegaldierantz, eguzkitua eta bota poltsatua. Pisua zabaltzen dute.</p> <p>Ref: 04133 140.000 €</p>
 <p>Pisua salgai Irun Aida zaharra PREZIO BAJA Azalera 35 m², gela 1, bihurgela, komana, egongela, sukaldia, berokurutz eta pisua zabaltzen dute.</p> <p>Ref: 04398 70.000 €</p>	 <p>Pisua salgai Irun Palmira Azalera 85 m², 3 gela, 2 bihurgela, egongela, sukaldia, berokurutz, trasterkua, eguzkitua, berokurutz, eguzkitua.</p> <p>Ref: 04299 242.000 €</p>	 <p>Pisua salgai Irun Arbes Azalera 95 m², 3 gela, bihurgela 1, egongela, sukaldia, berokurutz, trasterkua, berokurutz eta terraza. Oro eguzkitua.</p> <p>Ref: 04370 144.000 €</p>
 <p>Pisua salgai Irun Bobolia Azalera 70 m², 2 gela, bihurgela 1, komana, 1, egongela, sukaldia, berokurutz, berokurutz, eguzkitua, eguzkitua.</p> <p>Ref: 04399 170.000 €</p>	 <p>Etxea salgai Irun Endian Azalera 290 m², 3 gela, 2 bihurgela, terrazza, egongela, sukaldia, terraza, erretara, berokurutz, berokurutz, eguzkitua. Garajea eta berokurutz berokurutz.</p> <p>Ref: 04395 460.000 €</p>	 <p>Etxea salgai Irun Ventas Azalera 270 m², 3 gela, 2 bihurgela, egongela, sukaldia, 2 terraza, berokurutz, eguzkitua, Garajea eta berokurutz berokurutz.</p> <p>Ref: 04374 480.000 €</p>

Eskari handiagatik, **alokatzeko etxebizitzak behar ditugu!!**

ARGOIAK-EK ANTOLATUTAKO JARDUERAK



Urriak 21

Zer? M^a José Noainen es-
kutik "Viena 1900" hitzaldia.

Non? Argoiak, Bertsolari
Uztapide, 6

Ordua? 17:00etan.

Prezioa? Doako Sarrera.

Antolatzailerak? Argoiak
Kultur Elkartea.

Telefona? 943620621.

Urriak 28

Zer? Sukaldaritza tailerra
"Amona Kattalin Txoko" ja-
tetxeko Txemi sukaldariaren
eskutik.

Non? Argoiak, Bertsolari
Uztapide, 6.

Ordua? 17:00etan.

Prezioa? Doako Sarrera.

Antolatzailerak? Argoiak
Kultur Elkartea.

Telefona? 943620621